

González eta Fraga: bakoitzari berea

Deia, 1983-08-21.

Kazetariak ba ditu berezko diren eskubideak, eta baita obligazioak ere.

Beste edozein lanbidetan ari denak bezala.

Nire ikuspuntu honetatik izan ditut bai Gonzalez eta bai Fraga kritikatzeko aukerak: nire eskubide osoz erabilitakoak; ba dut, ordea, pertsona horiek berak, onik badagite, neurri berean goresteko betebeharririk.

Hau egin nahi nuke gaur.

Felipe González, Espainiako Gobernu sozialistaren buru dena, maiz pasatzen dugu gelgan; halakoa du ofizioa!; hitzak neurtzen dizkiogu zabalean, luzeran, lodian; hitzen ordeztu erabakiak ba dira, zorrotzago oraindik, horien ondorioak erantzunkizun handiagoa bait dakarte hitz soilak baino. Oraingo honetan Presidente espainolaren hitzak ditugu auzitan, baina hitz horiek jarrera bat erakusten dutenez, ekintza mailan jar ditzakegu, zeren honen inguruko erantzule nabarmenenak Cantinflas baten legez edozer esaten hasi diren unean bertan Felipe González-ek oporretako aisi tartea aztinu eta hitz gogoangarri hauek esan ditu: "Ba da komunikabiderik, eta baita talde politikorik ere, LOAPAz eman den epaitza Gobernuaren derrota izan dela derizkiotenak. Ongi etorria izan bedi kritika hau. Gobernuak, legearen ulerkuntza errektifikatu du. Konstituzioaren Auzitegiak, gainontzeko erakunde guztiak bezala, ez du egi osoa beti berekin, baina ba du erakundeen arteko harremanak bakerazteko botere instituzionala. Erabaki bat hartzen duenean, errespetatua, onartua eta betea izan behar du. Hau da Gobernuak egiteko duen asmoa".

Ni neu kaskutzik ibiltzeko ohituera badut ere, beti kasu hauetako buruan sentitzen duten nire aitonen eta aitaren euskaldun txapela kentzen dut, Felipe González-i errespetu eta begirunea erakusteko.

Merezi baitu.

Batez ere une berean militarrek hitz konstituzional horiek irentsi ezinik utzi dituanean. Eta armagizonen monagilo den Fragaren astakeriak elementu horiek zirikatze asmotan hitz-jarioen hasi denean. Nola ez duzu tamaina honetako pakidermoa *politikaren izenean* Herri Batasuna legez kanpora uzteko erremedioa ematen ari denean kritikatuko?

Garaun izpi bat duen edozeinek, banderaz bilduta ohean sartzen diren horietakoa ba da ere, ba daki hau dela, sigla honetako mutilak mendira botatzeko biderik erraz eta dituen azkarrena. Baina, kasu!, daitekera da, baita ere, Fragaren burmuinak kiribilak horretxan bila esandako hitzak izatea, kolpearen aitzaki handiaren bila kandela piztu baitzuen aspaldi!

Aurpegiz eta jitez harakina dirudi (barka harakinak!) eta karnizeria bat ez litzaioke Trukutú honeri seguraski gaizki etorriko.

Hara bakoitzari berea ematen neu ahalegindu.